

## TREBAKUNTZA 2021-09: BERA/BERDIN

**OHARRA:** asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### OHIKO AKATSAK

1. \* Auto **berdinean** joan gara biok bilerara.
2. \* Atezain **berak** esan zidan etorriko zela.
3. \* Bi udal horiek idazkari **berdina** dute.
4. \* Eraikin **berdinean** daude kultur teknikariaren bulegoa eta liburutegia.
5. \* Alkateak eta arkitektoak kamiseta **bera** daukate.
6. \* Aurten, egun **berdinean** hartuko ditugu oporrak

### ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Bera ez da berdin hitzarekin nahasi behar.

Bera: gauza bakarra da, baina behin baino gehiagotan errepikatzen da:

“Senar bera daukate bi andre horiek, jakinaren gainean egon barik” (senar bera bientzat).

Ikusten denez, *bera* hitzak baino ez du deklinabide marka hartzen: senar *bera*.

*Berdin*: elkarren antza duten gauza bi edo gehiago.

“Zure jantzia eta nirea oso antzekoak dira, *berdinak dira*” (jantzi bana).

Bestalde, *bera* hitzak badu beste zeregin bat: aurreko hitzak adierazten duena azpimarratzea, nor eta..., norekin eta... esapideen antzera. Eta, lehen azaldu dugun erabileran ez bezala, aurreko hitzak ere hartzen du deklinabide marka:

“Sailburuak **berak** eman dizkigu zorionak”.

“Alkatearekin **berarekin** egin nuen topo oporretan”.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Beraz:

1. Auto **berean** joan gara biok bilerara.
2. Atezainak **berak** esan zidan etorriko zela.
3. Bi udal horiek idazkari **bera** dute.
4. Eraikin **berean** daude kultur teknikariaren bulegoa eta liburutegia
5. Alkateak eta arkitektoak kamiseta **berdina** daukate.
6. Aurten, egun **berean** hartuko ditugu oporrak.

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.eus](mailto:iratxe.udalak@uema.eus) (Iratxe)

Hurrengora arte!

#### Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
946 279 195

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943 260 372

Azoka Plaza  
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa  
20734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943 816 699